

## Literatura →

## Kontatzen duen honen ama

Iratxe Esnaola

**P**asio *Hutsa*, *Gertakizuna*, *Lekua*. Hiru tituluok ziren gaurdaino Igela argitale-  
txeak Annie Ernaux-ri euskarara ekarritako lanak. *Duela ez* asko irakurri nuen *Une femme* obra hau erdaraz, eta, eragin zidan efektua tarteko, ingurukoie liburuaren berri eman nahi bai, baina istorioa zertan zetzan adieraztean, ez nintzen gai haren indarraren misterioa transmititzeko. Euskaraz, bigarren irakurraldi honetan, zirrara bera eragin dit, eta uste dut hobeto ulertu dudala hain laburra den narrazio honen grazia berezia. Kontakizun hasierak, lehenengo pertsona narrazioarekin amaren heriotzaren berri ematen diotela, Albert Camusen *Atzerritarra* dakar gogora. Kasu hartan bezala, amaren heriotzatik sentimentalki urrun delako irudipena ematen du narrazioarekin, heriotzaren ingurumariari aipu eginez. Ez pena adierazpenik, saminik, itxuran. Laster amaitzen da, ordea, erreferentziaren oihartzuna. Ondo neurtutakoak, bai, baina maitasun eta dolu adierazleak agertzen hasten dira alabaren parte-

tik. Norbere ama hil ostean haren historia kontatu nahiarri erantzuten dio liburu esperimendu honek. Baina ez da biografia bat, eta ez da eleberririk bat.

Badakigu narrazioaile eta idazleak hamar hilabete eman dituela idazten. Haren helburua norbere amaz beste baten ama balitz bezala hitz egitea da. Alegia, amaren istorioa alabaren ikuspuntutik ez, baizik emakumearen historiatik ekartzea. Horrek eskatzen du egoera sozialean txertatua ikustea haren izaera, eta, ama ulertzeko, alabaren oroitzapenak baino zerbaite gehiago baliatzea. Horri guztiari amaren heriotza gertatu berriko dolauek zailtasuna areagotzen dio, eta historia eraiki nahi badu ere, *ni-alaba* ezin du erabat iragazi. Amaren historia kontatu nahiegatik, alabaren historia, bere historia propioa, ezin du ekidin eta azkenik ama-alaba harremanean sakontzen amaitzen du. Merituzko bi puntu. Bata, norbere amaren eta familiaren ezaugarriak berak bezain hitz gutxiarekin eta zorrotzastun trinkoarekin deskribatu ahal izatea. Bestea, hain egoera tenkatuan amarenganako distantzia hartzeko adorea eta


eskuzabaltasuna izatea. Narrazioailearen samina sakona da, baina esku artean dugun dokumentu hau idazteari esker, amaren hasiera eta amaiera lotzea lortzen du, horrela itzuliz munderatu zuena gabeko bizitzara.

Nola egiten da hori? Nola hartu distantzia norbere amaz hitz egiteko? Hainbat eratan. Argazkiez baliatuz eta haiei buruz hitz eginaz. Amak esandako esaldiak kakotx artean txertatuz eta zabalagoa den jendarteko eta garaiko testuinguruan ulertzen saiatuz. Oroitzapen zaparradez, irudiekin. Amaren jaiotza, gaztetasu-

**'EMAKUME BAT'**

- **Idazlea:** Annie Ernaux.
- **Itzultzailea:** Itziar de Blas Fernandez de Gamarra.
- **Argitaletxea:** Txalaparta

na, bizibidea, heldu aroa, zahartzarora zein heriotza. Miresgarri gertatzen dena, memoriaren txo-koetako irudiak aurkitzea baino gehiago, horiei zentzu *objektibo* bat emateko erakusten duen tenplea da. Zuzen-zuzenean harira doan narrazioa da hau. Bizitzako mugari garrantzitsuenak hautatzeko zalantzarik egin ez balu bezala transmititzen dizkiugu amaren pasarte hautatuak, esan bat eta aurrera segi, atzean uzten duen ubera gertakizun berri baten pisuaz berehala estaliz. Estilo arrunt zuzenean, esaldi motz zorrotzekin adierazten digu zer izan den berretzat ama bat. Hotza eta neurtua omen Annie Ernaux-ren idazkera. Bai formaliki, baina hunkipenari ez dizkiote atek ixten, inolaz ere. Zehaztasuna eta konkretzioa bilatzen du, baina hunkipenak agertzea beharrezko bada, pintzelada soil batez izanda ere, agerian uzten ditu bere efektua egin dezaten. Estilo ez-joriko sentimendu agertze zuzena esan genezake. Aski eragin garria, haren mezua zegoan har dezagun: «narrazioaile izateaz gain, kontatutako guztiak bizitakoa ere banaiz, eta idazteak, tarte-  
teka, sendatu egiten gaitu».

HATSAREN POESIA  
Olerki bilduma  
2012**'HATSAREN POESIA. OLERKI BILDUMA 2012'**

- **Argitartzailea:** Hatsa Elkarte.

Urteroko ohiturari jarraituz, aurtentzen ere poeta askoren aleak batu ditu Senpereko Hatsa Elkarteak *Hatsaren poesia* bilduman. Ezagunak eta laudatuak batzuk, hasiberriak eta oraindik ezezagunak beste batzuk, haien hats poetikoaren adierazpen askotarikoa jaso du aurtengo liburua ere.

**'ROBINSON CRUSOE'**

- **Idazlea:** Daniel Defoe.
- **Itzultzailea:** Aintzane Ibarzabal.
- **Argitaletxea:** Elkar.

Abenturazko eleberraren klasiko handienetako bat da *Robinson Crusoe*. Mila bertsio, itzulpen, laburpen, moldaketa, eta abar sorrarazi dituena. Izan ere, uharte huts batera iritsi eta bizimodua bere kasa atera behar duen naufragoarekin irudiak indar berezia du.

**'XABIER LETE: «SINISTU NAHI DUT! LAGUNDU SINESGABE HONII» (MK 924)'**

- **Egilea:** Sebastian Gartzia Trujillo.
- **Argitaletxea:** Desclée de Brouwer.

Aurretik Txomin Agirre eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-rekin egin zuen bezala, oraingoan Xabier Leteren obra eta pentsamendua aztertu du Sebastian Gartzia Trujillok obra honetan.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Bi artista elkarlanean

Imanol Mercero

**A**lbun ilustratua berriki estandarizatu den formatua da, eta euskal sortzaileak honetara datoz apurka-apurka. Erroka ez da makala, testuaren eta irudiaren arteko elkarlanean sortzen baita kontakizuna, erdizka dena estetiko eta idatzizkoa. Hala, idazle-irudigile ahaltsuaren figura ezohikoaren faltan, lankidetzaren behar duen formatua da.

Zorionez dagoeneko badira euskal letretan adierazpide hau landu duten hainbat bikote. Esaterako esku artean dugun honekin Egaña eta Agirrek hirugarren aldiz egin dute elkarrekin formatu honen alde —aurretik daude (*Oneka*, Erein, 2004) eta (*Ni naizen guztia*, Erein, 2009)—. Halaber, baliabidearen berritasunak esperimentazioerako joerak indartzen ditu eta sortzaileen ahaleginak sekula baino erakar-garriagoak egiten.

Hizpide dugun album honetan,

txinatik etorritako neskato bat aurkezten zaigu, narrazio garai-kidearen erako kontakizun batean. Haren familia aitona bidez aurkezten da: kometagilea, afizioz, eta jatetxe baten jabea, ofizioz. Ez dakigu asko berari buruz, familiako gainerako kideak ez dira azaldu ere egiten, eta ematen ez zaigun informazioa gure kasa osatu beharko dugu.

Kontakizun honetako neskatoak eskolan arazoak ditu Luken deritzon mutil batekin, eta gatazka horrek ardatzen du kontakizuna: noiz hasi zen Lukenek neskatorekiko agertzen duen ezinikusia, nola korapilatu zen eta zein izan zen irtenbidea.

Ez gara zehetasunetan sartuko sorspresa ez zapuztearren. Aitzitik, idazlearen eta irudigilearen egiteko moldeaz bi ohar egitea komeni da.

Album ilustratua egitean orrialde osoak hartzen dituzten irudien indarrak baliatzea da formatu honen gakoetako bat, ikusi besterik ez dago Agirrerren lana

*Dragoi* honetan. Oinarritzko horri-urduinaren erakitako irudi zahar itxurakoak eskaini dizkigu 32 orrialdeotan, txinatar estetika gogora ekarri nahi duten oso proposamen pertsonalean. Zinez plazer estetiko eskaintzen dutenak, hartarako jaidura dugunon artean bederen.

Alta, irudien bidez testuaren hainbat une eta ñabardura azpi-

**'DRAGOIA'**

- **Idazlea:** Arrate Egaña.
- **Ilustratzailea:** Mari Mar Agirre.
- **Argitaletxea:** Erein,

marratzen dira, baina ez da informazio gehitzen. Hortxe amaitzen da irudien ekarpena. Izan ere, testuak eramaten du karga narrazioa osoa. Testua ausarta da, hari narrazio aberatsa duen kontakizuna eskaintzen digu, albumetan ohikoak diren errazkerietan erori gabe. Gainera elkarriketaren eta narrazioailearen arteko oreka gordetzen saiatzen da, irakurketa arina eskainiz. Laburtasun horretan, batzuetan joskera faltan dauden esaldiak agertzen badira ere, esan beharreko guztia esanez. Agian gutxi erakartzen duena amaierako sorspresaren aurrean Luken pertsonaia agertzen duen erre-akzioa da, nire irudikoz oso sinesgarria ez dena eta kontakizunari biribiltasuna galarazten diona.

Esanak esan, zazpi urtetik aurrerako irakurleei begira sortu duten album hau euskal ekoi-  
zpenen artean nabarmendu den obra da, bere ausardiagatik ez ezik, formatu horri egiten dion ekarpenagatik.